

KOTE KATUA ETA MUNSTROAK

Testua eta irudiak: ROCÍO MARTÍNEZ

Itzulpena: MANU LÓPEZ GASENI

Azal gogorrean koadernatua. 22 x 22 cm. 40. or. 13 €

IRAKURKETA-PLAN NAZIONALA (PNL Portugal)

Kote Katua eta munstroak (euskaraz)

ISBN 978-84-9172-262-5. Album irudidunak. Egile-lanak.

Gato Gulle y los monstruos (gaztelaniaz)

ISBN 978-84-8464-002-8. Álbum ilustrado. Obras de autor/a.

Gato Gulle e os monstros (galegoz)

ISBN 978-84-8464-555-9. Álbum ilustrado. Demademora.

El gat Guil i els monstres (katalanez)

ISBN 978-84-18558-29-0. Àlbum il·lustrat. Obres d'autor.

O Gato Gul e os monstros (portugesez)

ISBN 978-972-8781-37-8. Álbum ilustrado. Obras de autor/a.

Le paure di gatto Filo (italieraz)

ISBN 978-88-95933-68-9. Albo illustrato. Gli albi di autore.

Kote Katua bere gelan jolasten ari zen.

Bat-batean, zarata arraro bat entzun zuen: fffuuu fffuuu.

Asko beldurtu zen, eta korrika alde egin zuen...

«Kote Katua eta munstroak» obrak haurtzaroan ohikoa eta interesgarria den gai bati heltzen dio: beldurrak. Liburuko protagonista ez da bakarrik geratzeko gauza, zarata ezezagunek izutu egiten dutelako: leihotik sartzen den haizeak, garbigailuaren edo igogailuaren mugimenduak eragindako zaratak, ur-tantak galtzen dituen tangak... Edozein soinu arrotz erasoan datorkion munstro bihurtzen da Koteren irudimenean, eta horregatik ibiltzen da amaren babesaren bila. Katu-ama da haren segurtasun iturria, eta, istorioak aurrera egin ahala, ikusiko dugu umearen beldurrak uxatzea lortuko duela. Katu-ama Rocío Martínez-en *alter ego*-a da, irakurleei azaldu nahian beldurra buruan dagoela soil-soilik, eta gaititu ahal izateko aurre egin behar zaiola.

Irudiek, pastel-margoz, gozotasunez betetako pertsonaiak eta tokiak irudikatzen dituzte. Perspektiba-jolasei esker, etxeko gelak erraldoiak direla ematen du, hain zuzen ere ume txikiak hurbileneko errealtatea ikusten duten moduan. Handitasun-irudipen horren bitartez, areagotu egiten dira Koteren intriga, egoneza eta bakardadea. Dena dela, giroak inoiz ez dira ez ilun ez mehatxatzaileak; zenbait objektuk, hala nola jostailuak, jantziak edo liburuak –Sendak-en «Piztiak bizi diren lekuan» omenduz-, toki seguru batean egoteko ziurtasuna ematen dute: etxean.

Tipografiaren askotariko tamainek eta hitzen kokapen dinamikoak aberastu egiten dute narrazioa eta mezua: onomatopeiek edo tentsio-uneak markatzen dituzten esaldi handiek indartu egiten dute istorio honen komunikazio-potentziala.



- **Gala:** beldurrak gaititzea, etxea.
- **Gomendatutako adina:** 3 urtetik aurrera.
- **Alderdi azpimarragarriak:** «[La historia del Rainbow Warrior](#)» liburuaren egile berarena; «[A mares](#)» liburuaren ilustratzailearena; egoera beldurgarriak gaititzea; familia-harremanak.
- **Liburuaren aurrerapena:** <https://issuu.com/kalandraka.com/docs/kote-katua-eta-munstroak-eusk-1>

Rocío Martínez

(Madril, 1966)

Arte Ederretan lizentziatua (San Fernando, Madril). 1990az geroztik haur eta gazteentzako liburuak ilustratzen dihardu profesionalki, bertako zein kanpoko argitaletxeentzat. 1999an idazle gisa ere argitaratzen hasi zen. Haren lan batzuk zenbait hizkuntzatarata itzuli dira. Besteak beste, *A la orilla del viento* 2006 eta *Cabildo de Gran Canaria* 2010 sariak jaso ditu. Martínezen lanak Germán Sánchez Ruipérez Fundazioak, Mexikoko SEPEk, Venezuelako Banco del Libro delakoak, Cuatrogatos Fundazioak eta The White Ravens hautaketak gomendatuak izan dira. Bratislavako Ilustrazioko Biurtekoan eta Boloniako Haur Liburuaren Ferian parte hartu du, bakarkako zein taldekako erakusketa askotan agertzeaz gainera. <http://www.rociomartinez.es/>



www. **Kalandraka** .com

comunicacion@kalandraka.com

www. **Pamiela** .com
soitxate@pamiela.com